

UDAL HITZA

UDALBILTZA Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra

7. alea • 2002ko azaroa



Tolosan egingo da Udalbiltzaren Batzar Orokorra datorren azaroaren 23an.

«Euskal Herriaren Eskubideen Karta aurkeztu eta berretsiko da, prozesuari amaiera emanez»

BATZAR OROKORRA TOLOSAN

Datorren azaroaren 23an Euskal Herriko hautetsi guztiok hitzordua izango dugu Tolosako Leidor Zinema aretoan. 1999an Bilboko Euskalduna Jauregian, 2001eko otsailean Donostiako Kursaal Jauregian eta 2001eko abenduan Miarritzeko Udal Kasinoan egindako batzarrek finkatutako ibilbideei jarraiki, laugarren Batzar Orokorra egingo du Udalbiltzak datorren azaroaren 23an Tolosan. Aurreko batzarretan bezalaxe, gai ordenaren lehen puntua 2002ko ekimenen kudeaketa informearen eta aurrekontuen kitapenaren azalpena emango da. Horrekin batera, datorren urteari begira Udalbiltzaren Batzorde Eragileak onartutako plangintza eta aurrekontuen aurkezpena egingo da. Hautetsiek aurkeztutako emendakinak eta proposamenak bozkatu ostean, 2003ko plangintza eta aurrekontuak onartuko dira behin betikoz. Hirugarren puntuan, Euskal Herriaren Eskubideen Karta aurkeztu eta berretsiko da, urte osoan zehar landutako prozesuari amaiera emanez. Loren Arkotxa Udalbiltzaren Lehendakariak amaiera emango dio Batzarrari Adierazpena irakurri ondoren.



4-5-6

Batzar Orokorra

2003rako Udalbiltzak proposatzen dituen egitasmoen laburpena.



7

Eskubideen Karta

Herrietan egindako prozesuaren emaitza aurkeztuko du Udalbiltzak Tolosan.



8

Aldizkari Ofiziala

Batzorde Eragileak azken hilabeteotan hartutako erabakiak.

HASITAKO BIDEARI EUTSIZ

Iazko balantzea egiteko orduan, izozte egoera batetik ateratzeko bidea abiatu genuela aipatzen genuen. Hezurdura sortuta –egitura administratiboa, egoitza berrien zabaltzea eta Batzorde Eragile berritua– urte oparoa izan da amaitzear dagoen 2002.a, bai ekimenetan bai eta aurrera begirako egitasmoetan ere.

Amaitzear den urte hau goren mailako erronkek bete dute. Urtea «Zuberotarrakin bat, auzolanean» kanpainarekin hasi genuen. Erronka Zuberoko egun duen egoera aldatu eta harremanak estutzeko milioi bat euro lortzea zen. Euskal Herriko herri gehienetan buru-belarri aritu ziren apustu honen alde, txangoak, ekitaldi kulturalak eta bestelakoak antolatuz. Bigarren fasean, irailean, Euskal Garapen eta Kohesio Fondoak osatu zen. Fondoak kanpainan zehar lortutako dirua kudeatuko du, Zuberoran premian dauden egitasmo edo enpresen artean banatzeko. Fondoak ekonomia eta garapenean aditu diren pertsonen osatzen dute.

Euskal Herriaren Eskubideen Kartaren prozesuari ere ekin diogu aurten, amaiera Batzarrean eta ondoren Nazioarteko Konferentzian izango duena. Prozesu konplexu honetan, hainbat udaletako hautetsiek, euskal eragileek eta adituek hartu dute parte. Guztien ekarpenak ezinbestekoak izan dira, euskal herri-

tarron eskubideak jasotzen dituen Karta osatzeko. Oraindik gauzatu ez bada ere, Herrien Eskubideen aldeko Nazioarteko Konferentzia egingo da datorren abenduaren 6-7-8an eta bertan aurkeztuko zaie Nazioarteko hainbat herriri Eskubideen Karta. Besteak beste, Sahara, Palestina, Irlanda, Korsika eta Esloveniako ordezkariak hartuko dute parte Konferentzian.

Lan batzordeek ere abian jarri dituzte hainbat egitasmo. Komunikabideen Batzordetik Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroarekin hitzarmena sinatu da eta Herri Komunikabideen Mapa gauzatzeko beka zabaldu da. Nazioartetik, forumdiapora webgunea sortu da eta mundu mailako foro sozialetan –Florentzia, Porto Alegre– eta diasporaren topaguneetan –NABOko Biltzarra, FEVAko Euskal Aslea– parte hartu dute Udalbiltzaren ordezkariak. Euskaran Hizkuntz Eskubideen Behatokiarekin berritu da hitzarmena eta Kirolean euskal selekzioaren aldeko ekimenak antolatu dira. Horiak dira, modu laburrean esanda, aurten Udalbiltzak abian jarri dituen egitasmoak.

1999an marraztutako ildoak gorpuzten ari dira poliki-poliki. Oraingo egoerak laguntzen ez badu ere, Udalbiltzak bere bideari eusten dio eta hala egingo du datorren urtean ere.

Maribi Ugarteburu, Udalbiltzako eleduna



Udalbiltzaren laugarren batzarrak zer eskainiko du?

Batetik, Euskaldunan onetsitako helburuekin lanean jarraitzeko konpromiso tinkoa, 2003rako lan ildo eta egitasmo beharrezko bezain egingarriak aurkeztuz nazio eraikuntzarako. Bestetik, Euskal Herriaren Eskubideen Karta. Euskal Herriaren eta euskal herritar guztion eskubideak aintzat harturik eginiko Printzipioen Aldarrikapen oinarritzakoa. Herri honentzako egoera baketsu eta demokratikoa erdiesteko oinarritzko zutarrak diren eskubideen definizioa. Aitzinpauso bat eskubide horiek denak eta banan-banan egia bilaka daitezzen –ditzagan, denon artean– herri honetan.

«Guztion indarrak norabide berean jarri behar dira»

Posible izango al da aurkeztu diren erronkei aurre egitea?

Eskubide demokratikoen murrizketa errealtate gero eta gordinagoa da Euskal Herrian, eta Udalbiltza bera ere proiektu bezala kartzelan ikusi nahi lukete... Horren parean, indarren metaketa aktiboa behar da: udal hautetsiak lehenik eta behin; Udalbiltzako kide guzti-guztiak. Bestalde, Euskal Herriaren autodefinizio eskubidearen alde dauden pertsona, elkarte, alderdi, erakunde... guztien indarrak norabide berean jarri behar dira herri honi dagozkion erronkei aurre egiteko. Une erabakigarrian gaude eta nahitaezkoa da Euskal Herria aintzat hartzen dugun guztion indarrak sinergia dinamika batean paratzea, indarrok elkarren aurka xahutu beharrean.

Zergatik da garrantzitsua hautetsiek Batzarrean parte hartzea?

Udalbiltza hautetsiz osatutako instituzioa delako. Herrietan, udaletan du oinarria. Eta azken finean, Udalbiltzaren egitasmoak ez dira inolaz ere posible izango hautetsi horien inplikaziorik gabe. Bakoitza bere herriko hautetsi izatearekin batera Euskal Herriko hautetsia da, horrek dakarren ardura eta konpromiso guztiaz, bai eta pozaz ere.



UDALBILTZAREN BULEGOAK. •Astigarraga, Foruen enparantza, 13 - 20115 Astigarraga - Tel/faxa:943 335243 udalbiltza@udalbiltza.net •Baiona, Thiers karrika, 24 - 64100 Baiona - Tel/faxa: 0559 461389 baiona@udalbiltza.net •Iruñea, Gaztelu plaza 32 - 31001 Iruñea - Tel: 948 207991 irunea@udalbiltza.net •Bilbo, Plaza Barria 11 - 48005 94 4163452 bilbo@udalbiltza.net •Maule, Victor Hugo karrika, 12 - 64130 Maule Tel: 684182045
Web orria: www.udalbiltza.net

Lege gordailua: NA 1833/2001



KONFERENTZIARI BEGIRA

Nazioarteko Lan Batzordea buru-belarri ari da datorren abenduaren 6-7-8an Donostiako Kursaal Jauregian egingo den Herrien Eskubideen aldeko Nazioarteko Konferentziari begira. Bertan, besteak beste, Quebec, Irlanda, Letonia, Palestina, Eslovenia eta Eskoziako ordezkariak parte hartuko dute eta nazioarteko partaide-tza ordezkari-tza instituzional kualifikatua izango da.

Konferentziaren aztergai nagusia herrien eskubideen egoera izango da eta hainbat ataletan banatuko da hiru eguneko egitaraua, betiere Autodeterminazio eskubidea guztien oinarri hartuta. Lehen egunean, eskubide kolektiboan gauzatzeko bidean Quebec eta Irlandako esperientziak aurkeztuko dira. Bigarren egunean, autodeterminazio ikuspuntutik Hegoafrikari eta Letonian demokrazia eraikitzen ari diren herriak aztergai izango dira. Europako erakundetzak ere atal bat izango du eta, 2004ko Konstituzioari begira, herrien ikuspuntua aztertuko da.

Bestalde, euskal diasporak atal berezia izango du Konferentzian. Egungo egoera aztertzeaz gain, diasporaren



Globalizazioaren eta autodeterminazioaren inguruan Udalbiltzaren ordezkariak hitzaldia egin zuten abuztuan Nazio Batuetan.

antolaketa eta harremanak estutzeko proposamenak aztertuko dira.

Konferentzian parte hartzea irekia izango da eta hautetsiek izango dute bertaratzeko aukera. Parte hartu nahi izanez gero, azaroaren 29a baino lehen egin behar da matrikula kanpo@udalbiltza.net helbide elektronikoa edota 94 4163452 / 943

335243 telefonoen bidez. Matrikularen kostua 30 eurokoa da eta matrikulatzeak akreditazio izaera eta ponentziak eskuratzeko eta bazkaria izateko eskubidea emango ditu.

Bestalde, Udalbiltzaren Nazioarteko Lan Batzordeko ordezkariak Florentzian azaroaren 7tik 10era egingo den Europako Gizarte Foro-

an parte hartuko dute. Udalbiltzak «Eskubideak-Herritartasuna-Demokrazia» mintegian parte hartuko du, «Autodeterminazio eskubidearen alternatiba globalizazioaren aurrean» mintegiaren barnean, alegia. Udalbiltzaren ordezkariak Euskal Herrian garatzen ari den alternatibari buruz mintzatzeko dira.

BATZARREKO INFORMAZIOA

Tolosako erdigunean kokatzen den Leidor Zinema Aretoa hautatu du Udalbiltzak laugarren Batzar Orokorra antolatzeko. 09,30etan atek zabalduko dira hautetsientzat eta, ohi bezala, herrialdeko banatutako mahaietan asistentzia hartu eta Batzarrean aztertuko diren txostenak banatuko zaizkizue. Harrera eginda, 10,00etan ekingo diogu Batzarrari.

Txostenen karpeta berean, fitxa bat aurkituko duzue zuen datu pertsonalak jartzeko, aurrera begira Udalbiltzarekin harremanak errazteko eta arinagoak izan daitezen.

Batzarraren aurretik, azaroaren 4tik aurrera, Udalbiltzaren web orrian aurkituko duzue Batzarraren inguruko informazio guztia. Berritua eta edukiz bete da datorrigu web orria eta, Batzarrari dagokionez, pasahitzaren

bidez informazioa eskuratzeko aukera izango duzue hautetsiak www.udalbiltza.net helbidean. Bertatik izango duzue emendakinek eta proposamenak aurkezteko aukera ere.

Aurreko Batzarretan bezalaxe, euskal eragileak gonbidatu ditugu Tolosara. Udalbiltzaren egitasmoen berri zuzenean jasotzeko aukera izango dute, beraz, Batzarrean parte hartzen dutenek. Gainera, elkarla-

nean aritzeko bideak zabaltzeko aukerak eskainiko dizkigu Udalbiltzako kideoi.

Azkenik, Batzarrean parte hartuko duzuenok zuen parte-hartze hori baieztatzea eskatu nahi dizuegu, antolakuntza lanak errazteko izan daitezkeen. Konfirmazioak udalbiltza@udalbiltza.net helbidera edota 943 331246 telefonora helaraz ditzakezue.



UDALBILTZA 2003. URTEAN

Udalbiltzak gaur egun dituen egitekoak garrantzia handikoak dira. Euskalduna Jauregian sortu zenetik, Udalbiltzak udal hautetsien elkarlana sustatu nahi izan du Euskal Herriaren aldeko lan eraginkorra bultzatzeko eta Euskal Herriaren egituratzea era praktikoa indartzeko.

Euskal Herriaren egoeraren diagnosis egitea, nazio eraikuntza sustatzeko udalerrien arteko elkarlanaren saretzea, egun dugun gatazka gainditzeko bideak urratzen laguntzea, etorkizuneko egituratze politiko instituzionala lantzea eta Euskal Herriaren testigantza nazioarteko eremuan. Egiteko horiek guztiak bere gain hartu zituen Udalbiltzak duela hiru urte eta engaiamendu horri atxiki nahi dio aurrera begira ere.

Egiteko garrantzitsuoi begira, Udalbiltzak ezin du bere indar edo ahalmen mugatua soilik baliatu. Garatu beharreko dinamikak, Udalbiltzaren eskuetara ailegatzen diren eskakizun eta premiak, hain dira ugariak, premia larrikoak, ezen indar instituzional eta sozial askoren implikazioa ezinbestekoa bilakatzen den.

Udalbiltzako hainbat partaidek, aldiz, 1999ko irailean abiatutako ahalegin eta konpromiso horiekin ez du inolako lotura praktikorik izan azken hiru urteotan. Oraindik ere osatu gabe dagoen eta osatu beharreko dinamika nazionalaren aldeko egituraketa praktikoa da, beraz, 2003. urtean ezinbestean indarrean jarri behar duguna.

Euskal Herriko gaur egungo egoerak are premiazkoagoa bilakatzen du nazio eraikuntzaren aldeko indarren egituratze praktikoa hau. Indar politiko baten ilegalizazio urratsei aurre egiteko moduko ikuspegian lan egin



Datorren urteko plangintza eta aurrekontuak onartzea izango da Batzarraren oinarria.

1. ALDI BERRI BATI BEGIRA

beharko du Udalbiltzak, baina ez erantzute dinamika batetik.

Azken hiru urteotako ibilbideak eman digun ikuspegiaren oinarritu beharreko garapen eredu berri baten bila abiatzen da, beraz, Udalbiltza 2003. urteko egitasmoak eta aurrekontuak aurkezten dituen une honetan.

Eredu honetan funtsezko ezaugarria honakoa da: Udalbiltza instituzionalizazio prozesu huts bezala ez ikustea, aldez aurretik loturik eta bermaturik dagoen beste instituzio bat bezala baizik. Hemendik aurrera, lan gaitasun eta indar egituratze prozesu gisa landu beharko dugu Udalbiltza, Euskal Herria bere osotasunetik, inolako bazterkeriarik gabe, dugun gatazkaren sustraiei heldu eta eraikuntza nazionalaren aldeko konpromiso zehatzez aurrera egin nahi dutenekin.

Udalengandik eskuraturiko babes edo inplikazioaz gain, hainbat egitasmoren sostengua bermatzeko bestelako bideak ere jorratu beharko ditugu 2003. urtean. Udalbiltzaren jarduera finkatzeak Euskal Herriaren eraikuntza sustatzeko indar egituratzea eskatzen du gaur egun eta ez soilik nola halako diru "banaketa" bideratzea.

Hemen agertuko den ekimen askok beste motako inplikazio eta sostengua eskatuko du. 2003. urterako planteaturiko ekimenok Udalbiltzaren inguruan bestelako inplikazio eta lan uztarketa eskatzen du ezinbestean. Udal hautetsiek osatzen duten Udalbiltza ez ezik, eraikuntzaren ikuspegiaren lanean kokatu nahi duen ororekin elkarlan aukera zehatzak bideratu beharko ditugu.

Egitasmo nagusi bakoitzak, beraz, bere garapen aukerak landu beharko ditu. Lan gaitasuna eta bitarteko

ekonomikoak erakartzeko sistemak eta bideak zehaztu behar ditugu datozen hileotan, 2003. urterako planteaturiko egitasmoak bideratu eta Udalbiltzak datozen garai korapilatsuetan ere erreferentzia izateko gaitasuna izan dezan.

2003. URTERAKO EGITASMOAK

HELBURU NAGUSIAK

- Udalbiltzaren oinarria sendotzea da lehentasuna. Ekaineko hauteskondeen eraginaz gandi, orain arteko hiru urte luzeko ibilbide osoari erreparatuta, Udalbiltzaren egiteko politiko instituzionalak garatzen jarraitzeko lan moldeak eguneratzea. Herriz herriko lanari eta eragile sozialekiko elkarlanari lehentasun osoa emanez.

- Eskubideen Karta lantzen jarraitu eta eskubideen defentsa praktikoa egitasmo zehatz eta "iraunkorren" bidez egituratzen hasi.

- Euskal Herriaren nazio ordezkaritza lanarekin jarraitu eta hobetzea.

2003. URTEKO UDALBILTZAREN EGITEKO NAGUSIAK

1.-UDALBILTZAREN OINARRIA EGITURATZEAZ

Udal hautetsien egitekoetan, Udalbiltzak garrantzi handiagoa izan behar du, egungo egoera kontuan hartuaz. Horretaz gain, Udalbiltzaren esku geratu diren hainbat egitekoren "zama" beste batzuekin partekatze bideak zehaztu behar ditugu.

Beraz, lan batzordeak finkatu nahi ditugu eta ez soilik udal hautesiez osaturik. Arloz arloko batzorde-

ak osatzeko, udal hautetsien ekarpenaz gain, beste zenbait eremutako hautetsiak, eragile sozialak, inplikatu nahi diren herritarrak... egituratzeraz goaz. Arloz arloko Kontseiluak antolatzea izango da bidea.

Hainbat hautetsiri eragingo dien ilegalizazio prozesua ere kontuan hartu beharreko funtsezko gaia dugu datorren urteari begira. Herri honen ordezkari demokratikoaren defentsa artikulatu beharko du Udalbiltzak era zehatzean eta, horretarako, 2003ko martxoan edo, ez-ohiko Batzarra deituko du Udalbiltzak, hartu beharreko neurriak zehaztu eta bideratzeko. EUSKAL HERRIAREN NAZIO ERAIKUNTZA DINAMIKA EGITURATZEA izango da horretarako ardatz gidaria.

Funtsean, Udalbiltza sortzea eskatzen duen ikuspegitik, Udalbiltzak Euskalduna Jauregian bereganatu zituen egiteko funtsezkoak kontuan hartuta, nazio eraikuntzan urrats berriak proposatuko ditu Batzorde Eragileak. Bertan Batzorde Eragile bera eta arloetako ardurak berituko dira.

2.-2003KO EGITASMO NAGUSIAK

2.1.- Euskal Herriaren eskubideen aldarrikapena eta zainketa

Udalbiltzak Euskal Herriaren Eskubideen Kartaren lanketa etengabea du bere egiteko nagusia 2003. urteari begira, bai Euskal Herrian eta bai nazioartean ere.

Eguno gatazkaren gainditze bidea eskubideen bermean kokatu berri ditu Udalbiltzak kaleratutako adierazpenak. Euskal herritarren eskubideen aldarrikapena eta Euskal Herriaren Eskubideen Kartaren hedapena izango dira oinarriak.

UDALBILTZAREN OINARRIA EGITURATZEA

- Lan batzordeak finkatu eta indartu, arloz arloko Kontseiluak sortuz.
- Ez-ohiko Batzarra 2003ko martxoan, Euskal Herriaren nazio eraikuntza dinamika egituratzeko.
- Batzorde Eragilearen indartzea eta arloetako ardurak beritzea.

EGITASMO NAGUSIAK

- Eskubideen aldarrikapena eta zainketa: Eskubideen Kartaren hedatzea eta elkarlan iraunkorra eragile eta egiturekin.
- Autodeterminazio eskubidea: materiala biltzea eta autodeterminaziorako ibilbide praktikoiari ekiteko ekarpenak bideratzea.
- Nazioartea: bakea eraikitze konpromisoari eutsi eta eskubideen garapena bultzatzea. Euskal diasporarekin lana trinkotzea.
- Oroimen historikoa lantzea: oroimena lantzeko gune bat egituratzea.
- Arloetako egitasmoak: Hizkuntza Behatokiaren Hitzarmena mantentzea, euskararen ofizialtasunaren aldeko lana, kulturaren diagnosis egitea, herri txikien talde berezia martxan jartzea...
- Lurraldetasuna: herrien arteko sarea zehaztu eta eskubideen ukapen larrien pairatzen duten euskaldunekiko mekanismoak bultzatzea.

Horretarako, Udalbiltzak lan egitura iraunkorra osatuko du, eskubideei dagokienez Euskal Herriak pairatzen duen egoeraren deskripzioa lantzeko eta Euskal Herria 2003 txostena osatzeko.

Eskubideen aldeko ekimenak eta interlokuzio sozial eta instituzionala bultzatuko du etengabe, salaketa telefonoa edo antzeko tresnak martxan jarriaz, herritarrekiko lotura zuzena bideratzeko.

Egun lanean ari diren hainbat eragile eta egiturarekin elkarlan iraunkorra bideratuko duen bulegoa osatu nahi du Udalbiltzak eta behar den bitarteko hornitu funtsezko egiteko hau.

Atal honetan garrantzi berezia izan dezakeen ekimena ari da bultzatzen Euskal Herriko luze-zabalean. Naziotasun Aitormenaz ari gara, noski. Horren aldeko indar soziala biltzen laguntzea eta eskaldun gisa aritu eta identifikatu ahal izateko aukera berria urratzen dieten herritarrei sostengua eskaintzea izango dira egiteko nagusiak datorren urtean.

2.2.- Autodeterminazio Eskubidearen Euskal Zentroa

Euskal Herriaren eskubideen atalean koka daitekeen arren, arreta berezia eskatzen duen egitekotzat hartu nahi izan dugu Autodeterminazio Eskubidearena. Eskubide honen oinarri juridiko, politikoa eta historikoa lantzeaz gain, Euskal Herria nazioarteko eremuetan agertzeko beharrezkoak diren materialen sorkuntza bultzatuko du.

Dokumentazio bilketa sistematikoa gauzatzeaz gain, munduan burutu edo gauzatzen ari diren autodeterminazio prozesuen azterketa konparatuak lantzea ere bere gain hartuko du, Udalbiltzak bultzatzen duen autodeterminaziorako ibilbide praktikoari ekarpenak bideratzeko.

2.3.- Nazioartea

Orain arteko ildoari jarraiki, Euskal Herria nazio gisa agertzea funtsezko egitekoa du Udalbiltzak.

Aurreko urteotan eginiko lanari esker, bidea urratzen hasia da. Aurtengo ekimenetatik, bi oinarri sendo eskuratu ditugu: egun Euskal Herriak nozitzen duen gatazkaren inguruan, hainbat eragilekiko mintzaketza burutu ondoren, urriaren 12an Iruñean Udalbiltzak kaleratutako "Euskal Herriaren Demokrazia eta Bakeranzko bidea" izeneko dokumentua eta azaroaren 23ko Batzar Orokorrean aurkeztu eta bertan onartuko den Euskal Herriaren Eskubideen Karta.

Euskal Herriaren bakea eraikitzeko konpromisoari eutsi eta eskubideen garapena eta bermea bultzatzea izango dira 2003. urteko nazioarteko lana gidatuko duten oinarriak.

Horretarako, batetik, harremantarako gaitasuna finkatu beharko du Udalbiltzak eta nazioarteko hainbat eremutara bi ekimen hauen garrantzia ailegarazi.

Bestetik, euskal diasporarekin irekitako lana trinkotu. Horretarako, urteroko bidaiez gain, Nazioarteko Konferentziari begira osaturiko foruma mantendu nahi dugu, eta eskaintza zehatza osatu, udal hautesien ekarpena kanpoan bizi diren euskaldunei zehazteko.

2.4.- Oroimen historikoa lantzea

Ondare historiko nagusia ez ezik, herri orenen eskubidea da oroimena lantzea eta, zentzu horretan, Udalbiltzak hainbat eskakizun jaso du Euskal Herriaren ondare honen defentsan murgildu eta urratsak eman ditzan.

Honezkeron hainbat harreman bideraturik, oroimen historiko hori lantzeko gune baten egituratzea lantzen hasia da Udalbiltza, egun pairatzen dugun eskubideen urraketak

duen sustrai historiko sakona ezagutu, ezagutarazi eta Euskal Herriari eta euskal herritarrei zor zaien ordaintza historikoa lantzen hasteko.

Horren garrantzia egundokoa da eta, bere tamainan zehazteko, izenetan gordetzeko, lan eskergea eskatuko duen egitekoa dugu hau, XX. mendeko kontuetan mugatuta ere.

Bekak, publikazioak... hori guztia bideratzen hasteko lehenengo egituratze lana eta finantzaketa molde iraunkorra.

Testuinguru horretan, diktadurapean jasandako bortizkeriaz zenbait talde eta erakunde egiten ari den lanari garrantzia eman nahi dio Udalbiltzak, egungo gatazkaren parametroak argitzeko balioa izanda ere guztiontzako etorkizun aske eta baketsua eraikitzeko erreferentzia beharrezkoa delakoan.

2.5.- Arloz arloko lehentasunezko egitasmoak

Eskubideen defentsan, sortze unetik bertatik Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren sostenguari heldu dio. Lan horri jarraipena eskaintzeaz gain, euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan eskuratzeko bideari bultzada eman nahi dio aurtengo ekimenei bidez. Horretarako, buruturiko hausnarketa eta lege proposamenaren gizarteratzearekin batera, udal ordenantzak berreskuratu eta hezkuntza arloko eskubideen defentsa kanpaina bultzatuko dugu.

Kultura alorreko diagnosi serio bat bideratu nahi du Udalbiltzak, atal honetako Kartaren lanketa sakontzeko asmoz. Euskal liburuaren katalogatze egitekoari XX. mendeari buruz eginiko lanaren jarraipena bermatzen ahaleginduko gara.

Gizarte eta ekonomia alorrean, estatistika alorrean aurten egindako lanaren jarraipena ere badugu egitekoa, baita Herri txikien lan talde berezia martxan jartzearena.

Hezkuntza eta Kirolean aurtengo zereginari jarraipena ziurtatzea izango da ardatza. Komunikabideei dagokienez, Herri Komunikabideen Mapa azterturik, ekimen zehatzak bultzatuko ditu Udalbiltzak, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaz gain, beste ekimen premiazkoak helduaz.

2.5.- Lurraldetasuna egituratu: herrien arteko akordio sarea

Egun pairatzen dugun zatiketa administratiboak inkomunikazio eta urruntze maila mingarriak eragin ditu gure egunerokotasunean. Lurraldetasuna eskubidea dugu, baita zeregina ere. Horregatik, herrien arteko sarea zehaztu eta eskubideen ukazio larriena pairatzen duten euskaldunekiko elkartasun mekanismo zehatzak bultzatuko ditu Udalbiltzak datorren urteko egiteko nagusien artean.

AURREKONTUAZ BI HITZ

2003. urteak Udalbiltzaren ziklo berri baten hasiera markatuko du. Udalbiltzaren web orriaren eskuragarri duzun aurrekontu proposamenarean, datorren urtean udalen ekarpenaz bermatu daitekeenaren arabera egitasmoak finkatu nahi izan ditugu lehenik eta behin.

Baina, horretaz gain, egitasmo zehatzen aldeko indar berriak eraiki beharrean gaude eta eragile sozial eta herritarren inplikazio zuzena eskatuko du hemen laburbildu dizuegun plangintzak.

Herri honen geroa inolako bazterkeriarik gabe eta eskubide guztiekiko begirunean eraikitzekotan, Udalbiltzak, erronka berriei ez ezik, lan molde eta egituratze sendoagoari aurre egin beharko baitio, herrietatik eta arloetatik oinarri horrekin bat egiten duten guztien indar egitura-tzaile bilakatuaz.



DAGOZKIGUN ESKUBIDEEN DEFENTSAN

Euskal Herriaren Eskubideen Karta, urte eta erdiko prozesuaren eta lanaren emaitza, esku artean dugu jada, datorren azaroaren 23ko Batzar Orokorrean aurkeztu eta berretsiko baita. Eskubideen Kartak. Beste herrialde batzuetan izan da antzeko esperientziaren bat –Hegoafrika, kasu–, baina Europan Udaltzuzak bultzatutako ekimena izango da aitzindari. Euskal Herriaren eta euskal herritar guztion eskubideak aintzat harturik egindako printzipioen oinarritzko aldarrikapena izango da Karta. Hain zuzen ere, herri honentzako egoera baketsu eta demokratikoa erdiesteko oinarritzko zutari diren eskubideen definizioa. Eskubide horiek guztiak errealitate bilaka daitezzen lehen urratsa izango da.

Batzarrean aurkeztuko den Karta hainbat ataletan banatzen da. Atariko sarreran, Euskal Herriak duen herri izaera laburbiltzen da, pluraltasuna oinarri duena eta egituraketa politikoa propiorik gabe garatu behar izan duena. Bertan ondorioztatzen da herri izaera ukatu zaiola hamaika aldiz eta dagozkion eskubideen burujabe izateko borondatea duela.

Hori guztia kontuan hartuz eta nazioarteko hainbat adierazpen eta dokumentutan oinarrituz, Udaltzuzak Euskal Herriari egindako ekarpena aurkezten du, hainbat puntutan oinarrituz:

- Euskal Herriak herri gisa jarduteko eskubidea dauka, baita herri izateari dagokion eskubide-subjektuaren izaera onar dakion eta bere lurraldetasuna errespetatzen dakion eskubidea ere.

- Euskal Herria bertan bizi diren gizon eta emakumeena da, arraza,



Nazioarteko Konferentziaren aurkezpena egin zen Lisboan eta Eskubideen Kartaz mintzatu zen Oskar Goñi.

kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politikoa edo beste ezerengatikoa bereizkeriarik gabe.

- Beraz, Euskal Herriak bere egituratze eta ordezkaritza instituzionala erabaki eta gauzatzeko eskubidea du, demokratikoki bizitzeko eta adierazteko funtsezko baldintza delako eskubide hori.

- Euskal Herriak bakean eta segurtasunean bizi eta askatasunez erabaki ahal izateko eskubidea du.

- Euskaldunek beren naziotasuna izateko eskubidea dute.

- Euskal Herriak beste herri batzuekin izan nahi duen harremana askatasun osoz aukeratzeko eskubidea du.

- Euskal Herrian bizi diren lagunek, gizon nahiz emakume, giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiez erabat eta egiazki gozatzeko eskubidea dute.

- Gizonezko eta emakumezkoen arteko aukera berdintasunaren eskubidea egiazkoa izatea bermatuko da.

- Euskal Herriko herritar guztiek, hala nola geroko belaunaldiak, euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea daukate, inolako murrizketarik gabe.

- Euskal Herriko herritar guztiek dute hezkuntza eskubidea.

- Euskal Herriak bere kultura eta ezaugarrien nortasuna zaindu eta adierazteko eskubidea dauka.

- Euskal Herriko gizon nahiz emakumeek bizimodu duinerako eskubidea dute.

- Euskal Herriak garapen zientifiko eta teknologikoa, baita bere lurraldeko aberastasun eta baliabide naturalak, beraren esku izan, garatu eta kontrolatzeko eskubidea dauka.

- Euskal Herriak bere ongizatea beste pertsona eta herri batzuen suntsiketara ez oinarritzeko eta berdinkidetzat ditugunok ez zanpatzeko konpromisoa hartzen du.

Horiek dira oinarritzko puntuak, zeinak testuan zehar garatzen diren. Eskubideen Kartaren amaieran Udaltzuzak proposamen irekia dela azpimarratzen du eta euskal eragile guztiei parte hartzeko deia egiten die.



FUNTZIONAMENDUA

- ▶ **2002ko irailaren 7an egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, gatazkaren inguruko lan taldeak hainbat eragilerekin bildu ondoren sortu duen agiria aurkezteko, irailaren 18an Euskalduna Jauregian ekitaldi publiko bat egitea erabaki zen.
- ▶ **2002ko irailaren 7an egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, Nazioarteko Konferentzian parte hartuko duten zenbait gonbidaturi dagokionez, Euskal Herriko herriek, herritarrekin batera, zenbait gonbidaturen presentzia bere gain hartzea erabaki zen.
- ▶ **2002ko irailaren 7an egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, azaroaren 23an Batzar Orokorra deitzea ere erabaki zuen.
- ▶ **2002ko irailaren 7an egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, Durangoko Azokan stand bat jartzeko tramiteak egiten hastea eta materiala saltzea onartu zen.
- ▶ **2002ko urriaren 5ean egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, Durangoko Azokan, besteak beste, AZTIKER Soziologia Ikergetuek Udalbiltzarentzat egindako estatistika ikerketaren ondorioak publikatzea erabaki zen.
- ▶ **2002ko urriaren 5ean egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, azaroaren 23rako deitutako Batzar Orokorra Tolosako Leidor Aretoan egitea erabaki zen.

HARREMANAK

- ▶ **2002ko irailaren 7an egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, Udalbiltzaren ordezkariak batek N.A.B.O.-ra egindako bidaiaren berri eman zen.
- ▶ **2002ko irailaren 7an egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, Limoges-era egindako bidaiaren berri eman zen.
- ▶ **2002ko irailaren 7an egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, Sardeek Euskal Herrira bisita egin dute-eta beraiekin izandako hartu-emanen berri eman zen.
- ▶ **2002ko irailaren 21ean egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, Diasporarentzat foro bat martxan jarriko dela jakinarazi zen.

DIRULAGUNTZAK

- ▶ **2002ko irailaren 7an egindako Batzorde Eragilearen ohiko batzaraldian**, Herrien Ligarekin hitzarmena sinatu eta dirulaguntza ematea onartu zen.

Lagun agurgarria,

Udalbiltzak datorren abenduaren 6-7-8rako Herrien Eskubideen Aldeko Nazioarteko Konferentzia antolatu du Donostiako Kursaal Jauregian. Konferentziaren gai nagusia herrien eskubideen aitortza izango da. Egun dugun globalizazio arazoa dela eta, erabat garrantzitsua deritzogu banakako zein kolektiboak diren eskubideak aldarrikatzeari. Ildo horretatik, autodeterminazio eskubidea da gakoa eta hori izango da Konferentziaren bizkarrezurra.

Konferentzian hainbat herritako prozesu ezberdinak ezagutzeko aukera izango da, autodeterminazio eskubidea nola jorratu den hausnartu eta bertatik ikasi ahal izateko. Marko horretan,



Udalbiltzak Euskal Herriaren Eskubideen Kartaren prozesuaren emaitza emango du ezagutzera nazioarteko eragileen aurrean.

Udalbiltzak Herrien Eskubideen aldeko Na-

zioarteko Konferentzian parte hartzea gonbidatu nahi zaitu, bertan emango diren hausnarketak partekatuz. Parte hartzeko ezinbestekoa da azaroaren 29aren aurretik matrikulatzea:

– **Matrikularen zenbatekoa:** 30 euro

– **Kontu zenbakia:** (ES77)
3035 0214382140012693

– **Baieztapenak igortzeko:**
kanpo@udalbiltza.net
(faksa: 943 335243)

– **Zalantzetarako telefonoa:**
94 4163452 – 943 335243

– **Matrikulazioak akreditazio izateko**, ponentziak eskuratzeko eta larunbateko bazkarirako eskubidea emango du.